

auzo auzo • auzo auzo • auzo auzo

altza

Martxoan euskal jaiak datoz

hirugarren urtez Altzan Euskal Jaiak izango ditugu martxoaren erdialdean. Asteartean hasita eta hilaren 16a arte ekintza ugari antolatu dituzte auzoko 16 taldek.


Ekitaldiak asteartean hasiko dira, hilak 11, arratsaldeko 20.00etan kultur etxean. Egun horretan, «Txalaparta» titulupean, hitzaldia eta ikus-entzutekoak izango ditugu.

Asteazkenerako, berriz, Altzako baserrietan egindako diapositiba emanaldia iragarri da. Ostegunerako Xuia Reggae Band musika taldeak kontzertua emango du arratsaldeko 20.00etan Casarenen. Ostiralean, Altzako frontoian, Korrika Txikia, eta Kiki, Moko eta Koko pailazoen emanaldia izango da arratsaldez. Era berean, bertsolariak eta trikitalariak ibiliko dira auzoan.

Larunbatean, haurrentzako tailerrak antolatu dira atsedenaldira taldeekin, eta Altzako Udal Gaztelekuak Graffiti erakustaldia egingo du. Goizeko ekintzak amaitzeko, Korrika izango dugu Herrera-Larratxo-Altzagaina-Sta. Barbara-Herrera eta Pasaian 12.30etatik aurrera.

Arratsaldean eskuz eta palaz pilota partiduak iragarri dira. Bikoteak honakoak dira: Karrete-De Santos, Vicente-Gaztesi eta Gurrutxaga-Redondo eta Boubeta-Etxegia. Egitaraua amaitzeko, igandean ibilaldia izango da Altzan, eta auzoko frontoian barrikotea.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Asteartean hasi eta aste osoan zehar ospatuko dira Euskal Jaiak Altzan. Asteartean txalaparta izango da.



D ereduaren aldeko apustua

Auzoko Batxilergo Institutoak lehen aldiz D ereduan ikasketak egiteko aukera eskaintzen du aurten. Nahiz eta aurre-matrikulazio B eta A ereduaren matrikulatu diren Altzako gazte gehienak, 5 ikasle D eredu euskalduna aukeratu dute. Zalantzan dauden gurasoei esan, euskaraz D ereduaren matrikulatzeak ez duela inolaz ere esan nahi bere haurrek ez dutenik erdaraz ikasiko bi hizkuntzak ondo menderatuko dituztela baizik.

herrera

Zaharren egoitzak ekintza eta ikastaro ugari antolatzen ditu. Oraingoan, eskulanak proposatu dituzte: errusiar pastaz eta arroz pastaz kuadroak lantzea. Ikastaro hau urtero antolatzen da, baina oraingoan bazkide ez direnek ere parte har dezakete. Jubilatua egotea da baldintza bakarra. Ikastaroa asteartean emango da 18.00etatik 20.00etara, otsailean hasi eta ekainaren 3rarte. Izena eman nahi baduzu zataoz Aterpera.

Euskal Giroa kultur, kirol eta solaserako elkar-tekak ibilaldi berezia prestatu du igande honetarako, martxoak 2. Txangoan Jaizkibel eta Hondarribiako lurrik bisitatuko dira. Goizeko 9etan San Luis enparantzan bilduko dira partaideak eta goiz partean Jaizkibel inguruetan ibiliko dira. Itzulera eguerdiko 14.30etarako iragarri da eta bertan ohikoa den bezala Iñaki Olaziregik bazkari goxoa izango du prest.

Herrerako jaiak prestatzea ez da txantxetako gauza, are gutxiago Udalak emandako diru laguntzak murriztuz badoaz. Hori dela eta, oraingoan «Herrerako Jaiak» lan taldeak dagoeneko diru bilketa prestatu du. Ideia berria ez bada ere, parte hartzea gomendatzen da. Ostiraleko ONCE erakundearen zozketako zenbakiaren hiru zenbakiak dituen txartelak mariskada irabaziko du. Txartelak auzoko dendetan topa ditzakegu.